BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA DONOSTIA ZINEMALDIRAKO BIDAIAK KUDEATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Sozietateak eskatutako hegazkin eta tren bidaia nazionalak eta internazionalak (koste baxukoak barne) kudeatzea, txartelak erreserbatzea eta igortzea da. Xede horren barruan, ondokoak daude bilduta:

a) Hegazkineko eta treneko txartel guztiak erreserbatzea eta igortzea. Kontratuaren xede diren zerbitzuek joan-etorriko bidaiak barne hartzen dituzte eta kasu bereziak ere izango dira, bidaia tarte bat bakarrik kontratatzeko. Hegazkinez edo trenez bi garraiobide edo gehiago erabili behar direnean -garraiobidez aldatu beharragatik edota bi garraiobide konbinatu behar izateagatik-, horiek guztiak kontratuaren barnean sartuko dira.

b) Bidaia-txartelen ezeztapenak, baliogabetzeak, birjaulkipenak, aldaketak edo itzulketak kudeatzea.

Berariaz kontratuaren xedetik kanpo geratzen dira:

- Hegazkin pribatuan hegaldiak kontratatzea.
- Zinemaldiak bitartekaritzarik gabe zuzenean egiten dituen zerbitzu-kontratazioak, beste zinemaldi batzuekin egindako akordioen ondorioz, puntuak trukatzearen ondorioz, premiazko arrazoien ondorioz edo Zinemaldiak zehazten duen beste edozein arrazoi edo egoeraren ondorioz.

Zinemaldiak hegazkin-konpainiekin babes-hitzarmenak lortuz gero, esleipendunak hitzarmen horien arabera jaulki beharko ditu txartelak.

2.- ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Eman beharreko zerbitzuak zeregin hauek izango ditu, kostu gehigarririk gabe:

- Bidaia-txartelak erreserbatzea, berrestea, jaulkitzea, entregatzea eta fakturatzea, baita aldaketak, birjaulkipenak, baliogabetzeak eta itzulketak ere, aplikatu beharreko tarifen baldintza bereziak kontuan hartuta.
- Bisen eta antzeko izaerako dokumentuen izapideak, beharrezkoa izanez gero.
- Ordutegiei, ibilbide egokienei eta eskatutako garraiobideetan libre dauden plazei buruzko informazioa ematea, kasu bakoitzean lortu daitezkeen tarifarik onenak eta ingurumenari kalte gutxien eragiten diotenak aplikatuz eta, hala badagokio, bidaia-txartela aldatzeko edo itzultzeko baldintzak azalduz.
- Zerbitzu hornitzaileekin baldintza bereziak negoziatzea (aireko garraioak, lurrekoak, lekualdaketa zerbitzuak, etab.), munduko edozein lekutako baldintza ekonomikoei, lehentasun baldintzei eta mota guztietako zerbitzuen fakturazioari dagokionez.
- Esleipendunaren bidez kontratatutako ibilbideei, garraio-konpainiei, kilometroei eta abarrei buruzko informazio guztia ematea, sortutako CO2 datuak lortu ahal izateko.

3.- AURREKO URTEETAKO BIDAIA-KOPURUA ETA GARRAIOBIDEA

Orientatzeko eta informatzeko soilik, 2022 eta 2023an egindako bidaia-kopurua adierazten da jarraian:

	2022 URTEA	2023 URTEA
Nazionala	141	116
Europa	132	179
Beste herrialdeak	60	82
Trena	80	79
GUZTIRA	**413**	**456**

Hegaldiek lekualdatzeak ekar ditzakete.

Hegaldi nazionalen ohiko helmuga Donostia, Bilbo edo Iruñeko aireportuak izango dira.

Gainerako hegaldiei dagokienez, ohiko helmuga eta irteera-puntuak Hondarribiko, Bilboko, Biarritzeko eta Iruñeko aireportuak izango dira.

Tren bidaia nazionalen ohiko helmuga edo irteera-lekuak Donostia, Iruñea, Madril edo Bartzelona izango dira.

Tren bidaia internazionaletan, ohiko helmuga edo irteera-puntuak Hendaia, Biarritz edo Baiona izango dira.

Zerbitzu kopuru hau ezin da inolaz ere Zinemaldirako lotesletzat hartu, eta orientagarria da; beraz, zerbitzu-kopuruaren estimazio hau ez badator bat kontratua gauzatzean agertutako errealitatearekin, ez du ekarriko enpresa esleipendunak inolako erreklamaziorik egiteko eskubidea.

4.- KONTRATUA GAUZATZEA

4.1 Arreta ordutegia

Zerbitzua erregulartasunez eman beharko da, astelehenetik ostiralera (lanegunetan), 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, gutxienez.

Uztailean, abuztuan eta irailean, ordutegia 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da.

Enpresa esleipendunak telefono bidezko arreta bermatu beharko du Zinemaldiko zerbitzuak kudeatzeko zuzeneko linea baten bidez, eta gainerako komunikazioetan azkartasuna eta erosotasuna bermatu beharko ditu, erreserbetan.

4.2 Bidaiako gorabeheren arreta zerbitzua

Enpresa esleipendunak bidaiako gorabeheren arretarako zerbitzu bat izan beharko du, 24 orduz eta urteko 365 egunetan. Larrialdi kasuan Zinemaldiko langileei laguntzea izango da zerbitzu horren funtzioa: hegaldia bertan behera utzi, bidaia planak aldatu zerbitzuan sortutako beharren edo senideek dituzten beharren ondorioz…

Zerbitzu horiek emateak ez dio sortuko inolako kostu gehigarririk Zinemaldiari.

4.3 Dokumentazioa entregatzea

Bidaia egiteko behar den dokumentazioa entregatzeko lehentasunezko prozedura posta elektroniko bidez izango da Zinemaldiko Bidaia eta Ostatuen sailera.

4.4 Joan-etorriak

Enpresa esleipendunak ziurtatu behar du bidaiak baldintza egokietan egiten direla, lotura, laguntza eta lekualdaketa onenak eskainiz eta bidaietan ahalik eta denbora gutxien galduz.

Hegaldien kasuan, ahal izanez gero eta modu orokorrean, hegaldi, linea edo ibilbide erregularrak erabiliko dira bidaiak egiteko, ibilbide zuzen (eskalarik gabe) eta txartel elektronikoen bidez, kostu baxuko konpainiek eskaintzen dituzten estatu mailako eta nazioarteko hegaldiak barne.

Halaber, osasun agintariek txertatzea edo ezohiko osasun neurriak hartzea gomendatzen dutenean, enpresa esleipendunak horren berri eman beharko dio Zinemaldiari, garaiz eta idatziz.

4.5 Aldaketak eta ezeztapenak

Zinemaldiak eskatutako prestazioetan aldaketa edo ezeztapenen bat izanez gero, enpresa esleipendunak beharrezko neurriak hartu beharko ditu egoera hori ahalik eta ondoen konpontzeko.

5.- ZINEMALDIAREN ZERBITZU ESKAERA ESLEIPENDUNARI

Zinemaldiko Bidaia eta Ostatuen sailak eskatuko dizkio zerbitzuak bidaia-agentziari, posta elektronikoz edo telefonoz, eta eskaeran eragina izan dezaketen inguruabarrak deskribatuko dira (jatorria, helmuga, garraio mota, ordutegiak, bidaiari kopurua, etab.).

Eskaerak telefonoz egiten badira, Zinemaldiak zerbitzua posta elektronikoz onartzeko konpromisoa hartzen du.

Zinemaldiak zerbitzua eskatu ondoren, eta dagokion erreserba egin aurretik, esleipendunak aukerak jakinaraziko dizkio Zinemaldiari. Aukerek informazio hau jaso beharko dute nahitaez:

- Bidaiaria identifikatzeko datuak.
- Bidaiaren datak eta ordutegiak.
- Garraiobidea eta aireko linea edo garraio-konpainia.
- Plazen erabilgarritasuna.
- Txartel mota.
- Erreserbaren ezaugarriak edo baldintzak (itzulgarria, ordu/egun aldaketetarako malgutasuna, baliogabetzeko baldintzak, etab.).
- Erreserbaren erreferentzia edo lokalizatzailea.
- Zinemaldiak ordaindu beharreko zenbatekoa/prezioa, prezioa osatzen duten zatietan banatuta: tasak, kudeaketa gastuak, hobariak edo deskontuak…

Esleipendunak hurrengo 24 orduetan erantzun beharko die Zinemaldiaren eskaerei, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean izan ezik, horietan erantzuna berehala kudeatu behar baita kasu askotan, eta, horretarako, esleipendunak beharrezko langileak izan beharko ditu.

Enpresa kontratistaren proposamenek Zinemaldiaren beharrak betetzen ez badituzte, enpresa kontratistak irtenbide berriak proposatu beharko dizkio.

Zinemaldiak azken eskaintzatzat hartuko ditu emandako aukerak -alegia, ez dutela aldaketa ekonomikorik izango eta ez direla baldintzak aldatuko-, baldin eta aurrerago Zinemaldiak aldaketaren bat egitea erabakitzen ez badu eta esleipendunari hala jakinarazten ez badio. Ondorioz, Zinemaldiak aukeretako bat onartu eta enpresa esleipendunari txartelak igorri ditzan adierazi ondoren, ez du diferentziarik ordaindu beharko azkeneko prezioa onartutakoa baino altuagoa bada.

Hala eta guztiz ere, txartela igortzean prezio merkeago bat balego, enpresa kontratistak beste mezu elektroniko bat bidali beharko du informazioa eguneratuz.

Behin betiko erreserba egin ondoren, enpresa esleipendunak bide elektronikoz jakinaraziko dizkio Zinemaldiari aipatutako garraio- eta hegaldi-baldintzak, aseguruaren estaldura eta proposatutako zerbitzuan aldaketak edo baliogabetzeak eginez gero sortuko diren gastuak edo kostuak barne.

Gainera, jakinarazpen horretan, esleipendunak ziurtatuko du eskainitako prezioak berak aurkitutako merkeenak izan direla.

6.- GIZA BITARTEKOAK

Enpresa esleipendunak proiektuburu bat izendatu beharko du, Zinemaldiak kontratuari buruzko aholkularitza eta/edo azalpenak eskatzen dituenerako eta kontratua gauzatzean dauden gorabeherak jakinarazteko.

Era berean, deskribatutako beharrak betetzeko behar diren langileak atxikiko dizkio kontratuari. Kudeatzaile horiek gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute kontratuaren xedearen antzeko lanetan. Uztailean, abuztuan eta irailean, esleipendunak Zinemaldiaren esku jarriko ditu horietako bat lehentasunezko dedikazioarekin eta bestea une jakin batzuetan indartzeko.

Zinemaldiaren esku agentziaren guardiako kudeatzaile bat jarri beharko da, Zinemaldia egiten den bi asteburuetan, bai eta Zinemaldia egin aurrekoan ere.